



EBAZPENA, 2021EKO EKAINAREN 3KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, 2021/2022 IKASTURTERAKO SAILAREN PREBENTZIO-ZERBITZUAN HAINBAT LANPOSTU —ZERBITZU-EGINKIZUNETAN EDO, HALA BEHAR BALITZ, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEN ERREGIMENEAN— BETETZEKO DEIALDIA EGITEN DA.

299/2003 DEKRETUA, abenduaren 9koaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean laneko arriskuak prebenitzeko berezko zerbitzuaren sorrera, antolaketa eta funtzionamendua finkatzen da. Dekretu horren bidez, 3. artikuluan dioenaren arabera Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuak honako espezialitate hauek izango ditu:

- a) Laneko segurtasuna.
- b) Higiene industriala.
- c) Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatua.
- d) Osasunaren zaintza.

Prebentzio Zerbitzu honetako funtzioak bete ahal izateko giza baliabideei dagokionean aldiz, azken urte hauetan, Hezkuntza Sailak, Prebentzio Zerbitzuen Araudian, 39/1997 Errege Dekretuan, urtarrilaren 17koan, Goi eta Erdi mailako teknikari modura bete beharreko zereginak garatzeko hainbat irakasle zerbitzu-eginkizunetan bideratzeari ekin dio.

Halere, Hezkuntza Sailean laneko arriskuak prebenitzeko berezko zerbitzuari egokitzen zaizkion erroka eta betebeharrak direla eta gomendagarria gertatzen da lanpostu horiek, guztiak, Goi mailako Teknikariek beteak gertatzea.

Lanpostuak betetzeko aparteko eratzat taxutu da zerbitzu-eginkizuna. Honako hauetan arautzen da: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikuluan (azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan. Araudi hau funtzionarioei aplikatuko zaie.

Horren arabera, betiere Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Hezkuntza Sailaren Prebentzio-zerbitzuko 3 lanpostu betetzea, 2021/2022 ikasturterako, zerbitzu-eginkizunen erregimenean langile funtzionarioei dagokienez. Lanpostuak I. Eranskinean zehaztuta daude.

**Bigarrena.- Deialdi honetan parte hartzeko betekizunak, baztertzeak eta uko egiteak.**

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute unibertsitateko goi-mailako titulazioa eta OSALANek edo lan-agintaritza eskudunak egiaztatutako erakunde edo enpresa bateko Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikariaren titulua egiaztatuta duten karrerako funtzionarioek, laneko segurtasuneko, industria-higieneko eta ergonomia eta psikosoziala aplikatuko hiru espezialitate eta diziplinetan.

Era berean, lan-arriskuen prebentzio zerbitzu batean sei hilabeteko esperientzia profesionala izatea eskatzen da.

Bitarteko funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, baina horien aurretik doaz, lehentasun kontuan, karrerako funtzionarioak, praktikakoak barne.

Eskabidea aurkezteko unean, ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboan egotea edo lanpostua gordetzea dakarten administrazio-egoeretan batean egotea, funtzioen etenaldian izan ezik.

Zerbitzu berezietan edo beste Administrazio Publikoetan zerbitzuko egoeran dauden karrerako funtzionarioek ere deialdi honetan parte hartu ahal izango dute.

Era berean, parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, borondatezko eszedentzia egoeran daudenean, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.

Ebazpen hau argitaratu den egunera bitarte, deialdi honetan deitutakoez, 2021/2022 ikasturterako, bestelako lanpostu baterako izendatua ez izana zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenaz.

Bereziki, deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- a) 2021/2022 ikasturterako IRALE programa barruan liberatuta egongo direnak.
- b) Aurreko ikasturteetan emandako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena luzatzeko asmoa adierazi dutenak.
- c) Aurreko ikasturteetan esleitutako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena 2021/2022 ikasturterako luzatzeari uko egin dioten pertsonak, ezingo dute ukoaren xede den lanpostua aukeratu.
- d) Hezkuntza Saileko prebentzio-zerbitzuan kargua betetzeagatik zerbitzu-eginkizunen luzapenari buruzko txosten negatiboa izan dutenak.

Behin zerbitzu-eginkizuna esleituta, ezingo zaio hari uko egin, deialdi honen xede den ikasturtea bukatu arte.

Hirugarrena.- Eskabideak formalizatu eta aurkezteko epeak.

- a) Eskabideak formalizatzea

Lanpostu hauetariko bat eskatu nahi dutenek Langileak Kudeatzeko zuzendariari egin behar diote eskabidea (Hezkuntza Sailaren web-orri ofizialeko eredia erabiliz).



b) Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira:

- **Eskatutako betekizun espezifikoak:** Haiiek egiaztatzeko dokumentazioa (originala edo kopia konpultsatua).
- **Adierazitako merezimenduak:** Egiaztagiriri ofizialak (originalak edo kopia konpultsatuak)

Dokumentazioa Hezkuntza Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein erregistrotan, aurkeztu beharko da.

Ez dira aintzat hartuko eskaerarekin batera aurkezten ez diren merezimenduak, ez eta aurkeztuta ere, behar bezala egiaztatzen ez direnak.

c) Epea

Eskabidea egiteko epea 2021eko ekainaren 7an hasiko da, eta 2021eko ekainaren 11n amaituko da, egun biak barne.

Laugarrena.- Balorazio batzordea.

Deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta dagokion epean eta moduan aurkeztu diren eskariak Balorazio Batzordeak baloratuko ditu. Balorazio batzordeko kideak honako hauek izango dira:

- Batzordeburua:
 - Langileak Kudeatzeko zuzendaria edo horrek izendatuko duen ordezkoa.
- Batzordekideak:
 - Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuak Prebenitzeko berezko Zerbitzuko arduraduna edo horrek izendatuko duen ordezkoa.
- Idazkaria:
 - Langileak Kudeatzeko teknikari bat.

Era berean, irakaskuntzan ordezkaritza nahikoa duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat ere egon ahal izango da Balorazio Batzordean. Ordezkari horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Balorazio Batzordeak botoen gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak. Kide anitzeko organo gisa, oinarri hauetan berariaz jasotzen ez den guztian, haren araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 24.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa izango da.

**Bosgarrena.- Baremoa.**

Hautagaien merezimenduak deialdi honen II. Eranskineko baremoan azaltzen denaren arabera puntuatuko dira. Deialdia argitaratu aurretik ziurtatutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan.

Seigarrena.- Ebazpena.**a) Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.**

Balorazio-prozesua egin ondoren, Balorazio Batzordearen Lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazio osoak eta atalkakoak ere azalduko dira.

Behin-behineko Ebazpena Hezkuntza Saileko webgunean argitaratuko da:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>

Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

b) Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du deialdiaren behin betiko ebazpena. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira. Hautagaien lanpostuetan eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte —barnean hartuta balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa—, deitutako lanpostuak ezingo dira hutsik geratu.

Aipatutako ebazpena, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/>

Behin betiko ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Zazpigarrena.- Izendapena eta luzapenak.

Hautatutako hautagai bakoitza bere lanpostuan izendatuko da 2021/2022 ikasturtea amaitu arte.

Zerbitzu-eginkizunen esleipena edo behin-behineko esleipenak jaso dituztenek galdu egingo dituzte horiek, praktiketako funtzionario izendatzen badituzte.

Hautatutako pertsona zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.

Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizun bat emango zaie lanpostu horiek 2021/2022 ikasturtea amaitu arte betetzeko.



Halaber, hautatuak izan daitezkeen bitarteko langileak lanpostu horretan izendatuko dira 2021/2022 ikasturtea amaitu arte.

Kasu guztietan, aldi hori igaro ondoren, Hezkuntza Administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteetarako, beti ere horren beharra mantentzen bada, eta ezarritako prozedurari jarraituz.

Zortzigarrena.- Ordezkapen-zerrenda.

Baldintzak bete arren hautatuak izan ez diren pertsonak zerrenda batean sartuko dira merezimenduen baremazioan lortutako puntuazioaren arabera. Zerrenda horren helburua izango da titularren absentziak eragindako beharriaz erantzutea, harik eta beste deialdi bat egin arte edo zazpigarren puntuko azken paragrafoan aipatzen diren zirkunstantziek dirauten arte.

Bederatzigarrena.- Jarduera baldintzak.

Lanaldia deialdi honen III. Eranskinean jasotakoa izango da. 2020ko azaroaren 11n sinatu zuten Prebentzio Zerbitzuko arduradunak eta Langileak Kudeatzeko zuzendariak.

Goi Mailako Teknikariek, beren kidegoari dagozkion ordainsariak gehi Administrazio Orokorreko 23. mailarekin parekatzeko finkatua den Destino Osagarri Gehigarria jasoko dituzte, zerbitzu-arrazoiengatikako gastuen diru-ordainen kalterik gabe.

Goi Mailako Teknikariak organikoki tokian-tokiko Hezkuntza Lurralde Ordezkarieren menpe eta, funtzionalki, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren menpe egongo dira.

Hamargarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Hezkuntza Sailak jasotako datuak 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa eta 2/2004 Legean, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza Saileko webgunean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/>) eta Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.

Datu pertsonalak tratatu eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio:

- a) Langileen kudeaketa.
- b) Arduraduna: Langileen Kudeaketako Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- c) Helburua: Iraskasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.
- d) Legitimazioa:
 - a. Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezko tratamendua.



- b. Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduadunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzeko beharrezko tratamendua.
- c. 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa.
- d. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- e) Hartzaileak:
 - a. Estatuko Administrazioeko beste organo batzuk.
 - b. Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- f) Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.
- g) Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.euskadi.eus/clusulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-capa2-es.shtml
- h) Araudia:
 - a. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
 - b. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

Hamaikagarrena.- Ordezko modura aplikatzeko araudia.

Prozedura gaitan ebazpen honetan arautu gabeko kasuetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.



ERREKURTSOAK

Bide Administratiboa bukatzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, beti ere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 legearen 121. artikuluan eta hurrengoek 112.1 artikuluekiko xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 3an.
En Vitoria-Gasteiz, a 3 de junio de 2021.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**I. ERANSKINA****LANPOSTUAK****ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA**

- Lan Arriskuen Prebentzioko Goi Mailako Teknikariren lanpostu bat.

BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA

- Lan Arriskuen Prebentzioko Goi Mailako Teknikariren lanpostu bat.

GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

- Lan Arriskuen Prebentzioko Goi Mailako Teknikariren lanpostu bat.



II. ERANSKINA

BAREMOA

1. Lan-arriskuei aurrea hartzeko alorrean trebakuntza izatea, betiere lanpostuotan aritzeko baldintzetan eskatzen denaz bestekoa denean. Gehienez ere, 3 puntu.

- a) Lan-arriskuei aurrea hartzearekin harreman zuzena duten Laneko Segurtasun eta Higieneko Nazioko Erakundeak, OSALANek edo herri administrazioen menpean aritzen diren erakunde analoek eman edo antolatutakoak edo erakunde horiek homologatutako enpresek emandako ikastaroengatik. 20 orduz azpiko ikastaroak ez dira baloratuko. Azpitatal honen bidez gehienez ere 1,5 puntu emango da.
- a. 20-40 ordu bitarteko ikastaroengatik: 0,15 puntu.
 - b. 40-60 ordu bitarteko ikastaroengatik: 0,30 puntu.
 - c. 60 orduko edo hortik gorako ikastaroengatik: 0,50 puntu.
- b) Lan-arriskuei aurrea hartzearekin harreman zuzena duten ikastaroak eman izanagatik:
- a. Ordu bakoitzeko: 0,15. Gehienez ere: 1,5 puntu.
- c) Lan-arriskuen prebentzioko auditore titulazioa, edozein modalitatetan: 2 puntu.

2.- Argitalpenak. Gehienez ere, puntu 1.

Lan Arriskuen Prebentzioarekin erlazio zuzena duten argitalpen didaktiko/zientifikoak baloratuko dira:

- a. Argitaratutako liburu bakoitzeko (ISBN duena): 0,50 puntu.
- b. Argitaratutako artikuluko bakoitzeko: 0,25 puntu.

Eskatzen den lanpostuarekin lotura zuzena duten argitalpenak bakarrik baloratuko dira. Dagokion alearen bidez egiaztatuko da.

Lan Arriskuen Prebentzioko Teknikariek bere zereginetan emandako txostenak ez dira baloratuko.

Ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan -(abenduaren 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatutakoa) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala badagokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.

3. Lan-esperientzia. Gehienez ere, 15 puntu.

Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikari gisa prebentzio-zerbitzuan emandako zerbitzuak: 0,5 puntu hileko, gehienez 15 puntu.

4. Hizkuntza-eskakizuna. Gehienez ere, 2 puntu.

Deialdi hau argitaratu aurretik 2. HE egiaztatuta edukitzea baloratuko da.



III. ERANSKINA

PREBENTZIO-ZERBITZUARI ATXIKITAKO IRAKASKUNTZA-EREMUKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK

1. Lanaldia eta baimenak

1.1.33. artikulua: Lanaldia

LANALDIA: 1462 ORDU.

EGUNEKO LANALDIA: 7 ORDU.

ESKOLA-ALDIAK: Bi alditan zatitu ahal izango den lanaldi zatitua; 5 ordu goizez eta 2 ordu tartzet (gutxienez 4 ordu lan egin beharko da goizez, eta gehienez 3 ordu arratsalde).

ESKOLARIK GABEKO ALDIAK: Uztaileko, abuztuko eta Gabonetako nahiz Aste Santuko eskolarik gabeko aldiak lanaldi jarraituan eman ahal izango dira.

1.2.35. artikulua: Beste baimen-egun batzuk

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48.1K) artikuluan araututako egunak eta 48.2 artikuluan ezarritako norberaren aukerako egun gehigarriak langileek eskatuta hartu ahal izango dira, betiere zerbitzuaren beharrak bermatuta eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko arduradunari alde aurretik jakinarazita.

2. Funtzionamendu-jarraibideak lanaldia betetzeari dagokionez

Urtero, abenduan, Prebentzio Zerbitzuko langileek zer ordutegi eta lanaldi aukeratu duten jakinaraziko diote Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko arduradunari.

Era berean, Gabonak eta Aste Santua (eskolarik gabekoak) zehaztu ondoren, langileei jakinaraziko zaie, lanaldi jarraitua egin ahal izan dezaten.

3. Oporrak

Langileek eskubidea izango dute egutegiko urte bakoitzean ordaindutako hogeita bi egun balioduneko oporrak hartzeko, edo, zerbitzuan emandako denbora urtebeterra iristen ez bada, proportzioan dagozkien egunak hartzeko. Larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuko arduradunari eskatu beharko zaio oporraldia hartzeko.

Alde horretatik, abuztuan hartuko dira oporrak, printzipioz, zerbitzuaren beharrak bermatzeari kalterik egin gabe.



4. Bestelako lan-baldintzak

Gainerako baldintzak, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan ezarritakoak izango dira, izendapenera eta betetzen dituzten eginkizunetara egokitzeko aukerari kalterik egin gabe. 185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa.

